



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2021ko HIRUGARREN LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2021eko hirugarren lauhilekoan elikagaiei buruzko 1515 jakinarazpen izan dira. Horietatik 509 alertak izan dira (%33,5), 518 informazio-jakinazpenak (%34,5) eta 488 mugan egin diren ukapenak (%32).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **37,5a Turkiakoak** eta **Indiakoak**, % **16,5**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **21**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**32a** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil** %**43**arekin da jakinarazpen gehien sortu duenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2021ko 3. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1515 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Kutsadura biologikoa	% 28,5
Iruzurrak	% 26
Mikotoxinak/biotoxinak	% 14
Hondakinak	% 12,5
Kutsadura kimikoa	% 7
Metal astunak	% 5,5
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 3,5
Kutsadura fisikoa	% 3



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 83an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **PIKUAK** kutsaduren % 23a eragin du. Kasu gehienetan (% 97a) **TURKIA** zuten jatorria

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %66a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 63,5an. **PIPER BELTZA** izan da produktu protagonista %40ko kasuetan, % 100ko kasuetan **BRASIL** jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, %28a *Salmonella enteritidis* dagokio (**OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 89a eta % 86ko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria) eta %8,5a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan **HEGAZTIAK** protagonista direlarrik (%73a) eta europarrak (%100).

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %13a eragin ditu, **HARAGI-ERATORRIETAN** %32an inplikatuta egonda, **EUROPARRA** % 100ean.

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK** %96a dira eta medikamentuak, %18a. Pestiziden kasuan, **KLORPIRIFOS** da protagonista nagusia %35ean, gehien bat **ZITRIKOETAN**, %56an eta **TURKIAKOAK** %83an..

Metal astunei buruz esan behar da **MERKURIOAK** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % 40a. **EZPATA-ARRAINA** protagonista izan da %76ko kasuetan eta jatorria **ESPAINIA** %44an.

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK** 42%ak (88 kasu), suposatu dute.

